


DBH
IRAKURKETA GIDA


EIE Euskal Idazleen Elkartea




Oharra: hemen topatuko dituzue idazleek egindako zenbait gomendio.
Halere, gida honetan agertzen ez den libururik landu nahi baduzu, “Saioak eskatu” atalean aukeragarri izango dituzu beste asko.

**OIER****ALAINA AGIRRE****BIZITZAKO KOLPEEI
AURRERA EGITEAZ**

Mundura begira bizi da Oier, baina ama gaixotzen zaionean bere barrura begiratu beharko du halaberharrez. Ustez sendoak ziren ideietan arrakala txiki batzuk irekiko zaizkio, eta emozioek dardarka jarriko dute bere izateko moduaren eraikuntza osoa.

**EZER EZ DA DIRUDIENA****MARIBEL AIERTZA****ARTEA
HARREMANAK
BIZITZA**

8 narrazioko bilduma kolore anitzekoa: Van Gogh-en belarri ospetsua MOMAko erakusketan; grafitigile talde batekin endredatutako neska-karen abenturak eta desbenturak; Jaiotzen erakusketan bi tarantulek sortutako deskalabrua...

**IRULEAK****GARAZI ALBIZUA****KOMIKIA
IDENTIDADEA
HISTORIAKO
EMAKUMEAK**

Hiru dira iruleak: Klotok, Lakesis eta Atropos. Bel-durgarriak, boteretsuak eta independenteak. Gizakien patuaren jabe eta gidari... baina, hargatik, Lurrean aspaldi ahaztuak. Asper-asper eginda, Klotok jolas tentagarririk bat proposatu die ahizpei: lurtar baten bizitzan eragitea. DBH 3- DBH 4



GAIZKILEEN GALTZADA

GARAZI ALBIZUA

FIKZIO HISTORIKOA

XIV. mendeko *Gaizkileen mugako* gizartearen adierazgarri izan zen botere nahia-
ren ustelkeria sarean oinarrituta dago testua. Pertsonaia bakoitzaren beldurrak, asmoak eta betebeharrak jakitearekin batera, irakurlea murgilduko da giro pozoitsu eta erakargarrian.

DBH 3- DBH 4



LARUNBATEAN BUKOWSKIN

JOHN ANUEZA

KOMEDIA
DRAMA
GAZTE LITERATURA

Donostiako Bilintx institutuan, mutiko lotsabako batzuek ezkutuko kamera bat jarri dute nesken aldagelako duxtatan. Gertakari horretatik abiatuta, teknologia berrien erabilera arriskutsuei buruzko hausnarketa gazi-goxoa planteatzen da.



LEPOAN HARTU

JOHN ANUEZA

KOMEDIA
DRAMA
GAZTE LITERATURA


Donostiako Bilintx institutuan, sekula santan existitu den futbol talderik aldrebesena sortu dute. Berehala hasiko dira gazteen arteko liskarrak, mutiko txoriburuek ez dietelako neskei taldean jokatzeko utzi nahi. Egoera konpontzeko gai izango ote dira?



**SAN FERMINETAN,
LESAKAN**
JOHN ANDUEZA

**KOMEDIA
GAZTE LITERATURA**

Donostiako Bilintx institutuan, laugarren mailako ikasleak urte amaierako bidaia antolatzeko dirua batzen ari dira. Halako batean, norbaitek diru gutzia lapurtuko du... baina egoera larria bizitzen ari den ume gaixo bati laguntzeko. Hor dago koska.



IPUIN-ENTZULEA
AITOR ARANA

GAZTE LITERATURA

Itziarrek bere bizitzako ametsa betea du: idazlea da eta gazteek gogoko dituzten liburuak argitaratzen ditu. Gazteak ez dira, ordea, irakurtzen dioten bakarrak. Nahikoa izango da Fermin bezalako gizon heldu baten gan piztutako miresmena, idazlearen ametsa amesgaizto bihurtzeko.



**LIDIAREN
BETAURREKOAK**
AITOR ARANA

**ESPERANTOA
HISTORIA**

Eleberri honek Lidia Zamenhof du protagonista. Esperanto hizkuntza sortu zuen Ludwik Lejzer Zamenhof poloniarraren alaba zen, 1904an jaioa eta, judutarra izanik, 1943an Trebilinkako kontzentrazio esparruan hildakoa.



MAITASUN SUA

AITOR ARANA

GAZTE
LITERATURA

Ekain mutil bakartia da. Oporretan eskolako idazlan nekagarri bat egin behar du. Idazlana egiteko dokumentazio bila dabilela, antzinako eskuizkribu bat aurkituko du, eta bere bizitzarekin antzekotasunak dituen abentura zirraragarri eta hunkigarri batean murgilduko da.



ARRUTIREN BANDA

JON ARRETXE

NOBELA BELTZA

Umorez betetako narrazioa, eritmo bizikoa. Pertsonaia bat kartzelatik atera eta antzinako banda berriz elkartzen saiatuko da, lapurreta baten emaitza berreskuratzeko.

DBH 4




BETI IPARRALDERANTZ

JON ARRETXE

ABENTURA
NOBELATXOA

Drissa gazte maliarra Europan omen dagoen aitaren bila abiatuko da eta, Afrika zeharkatuz, mila abentura biziko ditu.

DBH 1




TRUMOIAREN ALABA

JON ARRETXE

**ABENTURA
NOBELATXOA**

Batari ausarta, tsunami baten ondorioz bakarrik geratu ondoren, Kusuma neba txikiarekin abiatuko da Sumatrako basoan zehar senide bila

DBH2- DBH3



ATĀRIA

YOLANDA ARRIETA

**FANTASIA
BALIABIDEAK
IDENTITATEA**

Instituto bateko lau gaztek 50 urte barruko beren hirira salto egingo dute. Distopia giroko hirian dagoen utopiazko gotorleku batean agertuko dira, ATĀRIAn, eta bertan arituko dira irautea merezi duten oinarritzko baliabideak lantzen.



TXOKOLĀTEGIA

YOLANDA ARRIETA

GAZTE LITERATURA

Donak eta Lilik hirugarren belaunaldia osatzen zuten eta, adin txikikoak izanik, oraindik ez ziren txokolategiaren jabe-jabeak, baina gurasoek erretiroa hartu orduko bilakatuko ziren saltegi gozoaren ugazabandire (amona bezalaxe). Ez, ordea, txokolate-maisu .




ZERAK

YOLANDA ARRIETA

MIKROIPUINAK
POESIA NARRATIBOA

Nire lagun ezkutukoak bes-
telakoak dira. Agerian ez
dabiltzalako deitzen diet
ezkutuko, baina haien bulka-
da benetakoa da. Fanta-
siaz izendatu ditut baina
muin organikoa daukate.
Egiazkoak dira. Biziak dira.
Nire lagun ezkutukoak nire
barruko indarrak dira.



ANTIPODAK

GAIZKA AROSTEGI

GAZTE LITERATURA

Euskal Herria. Berunezko
urteak. Jon, preso dagoen
etakide baten semea, eta
Oliva, Intxaurrondoko kuar-
telean dabilen guardia zibil
baten alaba, elkar maitemint-
zen dira. Baina amodioa ez
da batere kontu erraza izango
gorrotoak eta aurreiritziek
usteldutako hiri batean.



URREZKO ORRAZIA

GAIZKA AROSTEGI

HAUR ETA GAZTE
LITERATURA


Ainhoa arbasoen baserri-
ra heltzen da, gurasoekin,
eklipse bat gertatu baina
egun batzuk lehenago. Ber-
tan birramonaren sekretua
deskubritu eta hark egindako
kaltea konpondu beharko du.
Euskal mitologiako hainbat
pertsonaia agertzen dira fan-
tasia eta errealitatea nahasten
dituen liburu honetan.



HITZEN AHAIREA
GOTZON BARANDIARAN

**EUSKARAZKO
KANTAGINTZAREN
ERAGIN SOZIOLOGI-
KO ETA SOZIOLIN-
GUSTIKOA**


Kantagintzaren inguruko gogoetak irakurriko dituzu, baina ez edozelako kantu mota aintzat hartuta. Idazleek idatzitako letrekin sortutako kantuak, literaturak eta musikak eskuz esku sortutako piezak, horiek soilik izango dira liburu honetan aintzat hartuko direnak.



**EUSKAL HERRIKO
MITOLOGIA**
ARITZA BERGARA

EUSKAL MITOLOGIA

Gure mitologiaren pertsonaien aurkezpena+ kondairak+bideoak



KARLISTEN ALTXORRA
GAIZKA AROSTEGI

EUSKAL MITOLOGIA

agure batek kontatutako istorioak gazteei. Berton, ezagutu dituen pertsonaia mitologikoak agertuz joango dira



ELURPEAN

JOKIN DE PEDRO

AKZIOZKO ELEBERRIA, THRILLERRETIK ETA POLIZIA ELEBERRITIK

Neguaeren atarian Aranbeltza goi-mendietako herrixkara dator Gorospe inspektorea, oporraldi atsegina eta lasaia igartzeko asmotan. Elur-gosea du, neguko elurteen babes isilean aurkitu nahi du bakea. Baina amesten duen elur horrek berak buruhausteak besterik ez dio ekarriko laster.




ETSAI GORDEA

JOKIN DE PEDRO

POLIZIA ELEBERRIA

Josu Arriola kazetari ezaguna bere apartamentura sartu eta postontzitik gutun anonimo mehatxuzko bat jasotzen duenean abiatzen da istorioa. Gorospe inspektorea kazetariaren ilobaren laguntzaz ari-tuko da kasua argitu nahian.




IRUNAC BAT

JOKIN DE PEDRO

POLIZIA ELEBERRIA

Emaztearen ondasuna eskuratu nahian, hilketa ustez perfektua antolatu du Garik. Gorospe inspektoreak argitu beharko du kasua.



ZENDABALITZ

ERIKA ELIZARI

**BARNE-PENTSAMEN-
DUAK**

Parisetik Bilbora doan hegaldi gorabeheratsu baten kronika barruan doazen 7 bidaiariren ahotsek kontatua: lan-elkarrizketa batera joan eta haurdun dagoela ezkutatu duen neska; barruko bulkada suntsikorrei aurre egin behar dien pilotua...

DBH 4



ARTXIPELAGOA

ETXEBERRIAK

**ALDAKETA
KLIMATIKOA
KOMIKIA**

Etorkizun ez oso urrun batean, aldaketa klimatikoak ekarritako hondamendiaren ondoren, Euskal Herri gehiena urpean dago. Ur gainean geratzen den apurra lehengo mendi-tontorrak dira, Artxipelago moduko bat osatzen dutenak, eta bizimodua ez da erraza, ezta harremanak ere.



ZORTZI IPUIN GOTIKO

JON EUZI

BELDURRA

Beldurrezko zortzi ipuin biltzen ditu liburu honek. Hainbat gai eta giro erabili ditu egileak izu sentimendu hori pizteko: gazte-talde batek Halloween gauean hilerrira egindako bisita, etxe sorginduak, begizko eta madarikazioak...



SARA
JABI ELORTZA

NOBELA BELTZA

Sarak hamasei urte ditu eta Bilboko ikastetxe batean ikasten du. Neguko igande goiz batean izugarrizko biharamunaz esnatzean, Joseba, bere mutil lagunari adarrak ipini dizkiola gogoratzen du etsituta. Jokinekin enroilatu da, ikastetxeko frikien taldekoa.



KINITO EGUNAK
JABI ELORTZA

NOBELA BELTZA

1989an, Bilbon, bizi den hamasei urteko mutil bat da Iñaki. Bere ikastetxeko koadrilan zortzi kide dira eta hiriaren erdialdean kokatuta dagoen apaizen ikastetxe batean ikasten dute. Asteburuetan, ordea, egunerokotasunetik ihes eginda taberna batera joaten dira kinitoan jokatzera.



**EKOLOGISTA NAIZ
BAINA...**
GORKA EGIA

JASANGARRITASUNA

Liburua irakurri orduko, eguneroko bizitzan aukerara jasangarriagoak egiteko gida bat da. Bertan hainbat proposamen egingo zaizkizu, zure kontsumo ohiturak aldatzeko. Hitzaldia, liburua bera da, hitzaldi bihurtuta.




IPUIN KONTAKETA

MAITE FRANKO

IPUIN KONTAKETA

Maite Franko (Irun-Hondarribia, 1971), txipiroti-arrantzale eta lehorreko lamia baten zazpigarren alaba da. Antzerkigintza, irakaskuntza, bikoizketa eta literaturaren ur handietan oinak bustitakoa dugu. 2004 urteaz geroztik, ipuin-kontalaritzaren ozeano barean dabil!



AHOTS ISILDUAREN

BAHIKETA

IÑAKI FRIERA

DETEKTIBEAK

Mutiko bat desagertu da Gasteiztik hurbil, herri txiki batean. Komunikazioa da hura aurkitzeko gakoa.

DBH1



CONNEMARA GURE

BIHOTZEAN

JULEN GABIRIA

ELEBERRIA

Desmaitasun-istorio bat Irlandan zehar: Eider istripu batean hil da; handik gutxira, haren mutil-lagunak, Txemak, neskaren eguneroko bat aurkitu du. Eiderri buruz ez zekizkien gauzak aurkituko ditu bertan, eta, egunerokoari jarraituz, Txema Irlandara joango da.




CORALINE

JULEN GABIRIA (ITZULTZAILEA)

**GAZTE LITERATURA
FANTASTIKOA**

Coraline eta bere gurasoak beste etxe batera joan dira bizitzera, eta etxe horrek badu atetxo bat beti itxita dagoena. Zer ote dago atzean? Coralinek jakin nahi du, eta han deskubrituko duenak erabat aldatuko dio bere errealitatea ikusteko modua.




ANTZERKIA BIDE

LARRAITZ GARCIA

**POZAK
DESILUSIOAK
KEZKAK**

Institutoan jasotako gertaerak; kalean lagunekin izan dezaketen elkarrizketa hori; lehen urratsak; norberak bere buruarekin izan ditzazkeen bakarrizketak,... Nerabeen egunerokotasunetik sortutako testu motibagariak eta naturalak.



KUKUAREN KANTUA

IDIA GARCÉS

**ADISKIDETASUNA
MIGRAZIOA
EZEZAGUNAREKIKO
BEIDURRA**

Agure eta mutiko baten arteko harremanaz dihardu liburuak. Agurea kanpotik etorri zen aspaldi eta ez dago ondo ikusia herrian. Txoriekiko duten maitasunak batuko ditu biak. Bizitzaren azkenetan bata, bizitza hasiberri bestea, honetaz eta hartaz, bizitzaz arituko dira hizketan.




GORA TELOIA

AIZPEA GOENAGA

LITERATURA
DRAMATIKOA

Literatura dramatikoak, ikasleengandik gertuen egon daitekeen idazketa literarioa da. Antzerki gida honek ikasleak irakurtzera bultzatzen ditu: bai azalpenak irakurritz, bai adituen aholkuak irakurritz baina batez ere antzerki testuen aukeraketa bat proposatuz.



NI EZ NAIZ TXOTXOLO...!

AIZPEA GOENAGA

ANTZERKIA

Antzerkia irakurtzea beharrezkoa da antzerkia egin ahal izateko. Antzerki idazketa gainera ahozkotasunetik gertuen dagoen literatura da, eta batez ere, irakurketarako zailtasuna duten ikasleentzat gainera literatura oso baliogarria izan daiteke.




LAUTERDI PIRATAREN ALTXORRA

AIZPEA GOENAGA

NOBELA


Abentura liburua. Erraz irakurtzeko modukoa. Neska mutil baten abenturak eta tartean euskal kostaldeko piraten abenturak nahastuko dira.



BALIO ERANTZIA
EKAITZ GOIKOTXEA

**AFORISMOAK
BIZITZA
HERIOTZA
DENBORA**

Balio erantzia hitz egoki eta neurtuekin egia esateko ahalgina da, ezer ez eta festa. Zeharkatzen ditugun eta gaituzten oinarritzko gaiak ditu hausnargai Ekaitz Goikotxearen aforismo liburuak:: Bizitza, heriotza, denbora, isiltasuna, hitza, hizkuntza, identitatea...



ANDRAIZEA
IRATI GOIKOTXEA

IPUIN BILDUMA

Mundu paraleloak habitatzen dituzten pertsonen osatua dago, errealitateak une oro egiten du irudimenarekin dantza, talka eta batez ere jolas. Ikusten duguna, ikusi nahiko genukeena, irudikatuzera ausartzen garen horrekin nahasten da etengabe ipuin bakoitzeko puzzlea.



**HERRIAK EZ DU
BARKATUKO**
IRATI GOIKOTXEA

ELEBERRIA

ETak aita hil zion Oihanari duela hogeita bi urte, berak hemeretzi zeuzkala. Zauria bizirik du oraindik, baina ez du horretaz inorekin hitz egiten; bere seme-alabei ere ez die ezer argirik kontatu, nahiz eta barruan sumatu on egingo liekeela denei.




KENAVO, ZAKU BETE URRE!

IÑIGO IBARRA

ABENTURA-BIDAIA

Bertso zahar batzuen hariari tira eginez pirata baten altxorraren bila joanen dira Britainiara. Haien arteko harremanak korapilatuko dira. Bidenabar Britainiar kultura ezagutuko dute.




OSTADAR 7310

IÑIGO IBARRA

ZIENTZIA-FIKZIOA

Ostadar 7310 izeneko planetan bizi dira gizakiak. Androideak gizakien laguntzailerak dira. Dena da ederra eta zoragarria, H57 izeneko androide batek protagonistaren bitzta hankaz gora jarriko duen arte. Ezusteen kateak ez du atsedunik, jakin-minak bezalaxe.



ARRASTOA

JUAN KRUZ IBARRA

36ko GERRAREN
HASIERA
LEKUNBERRIN

36ko gerraren hasiera Lekunberrin. Detektibe bat hilketa bat ikertzera dator. Gerrak harrapatuko du, eta bertako pertsonaia batzuen arazoak partekatuko ditu.



LEHENENGO AMODIOA SUEDIAN

JOXEMARI ITURRALDE

TXIKIKO MEMORIAK

Risky Suediara joango da oporretan. Han, bertako bi neska ezagutuko ditu, Ingrid eta Marjia, eta hauek sortzen dioten zirrararen eraginez pixka bat aztoratuta ibiliko da. Maitasunaren ziztada ere biziko du.



GERRA ZIBILA BERRIATUAN ETA LE- KEITIOKO FRONTEAN

PATXI JUARISTI

HISTORIA: GERRA
ZIBILA

Gerra Zibilean Berriatuan eta, oro har, Lekeitioko frontean gertatu zirenak azaltzen dira.




UBIDE: 1936-1945

PATXI JUARISTI

HISTORIA: GERRA
ZIBILA

Gerra Zibilean Ubide (Bizkaia) frontean gertatu zirenak azaltzen dira.



MARKINAKO FRONTEA

PATXI JUARISTI

**HISTORIA: GERRA
ZIBILA**

Gerra Zibilean Markina-Xe-
meinen eta, oro har, Mar-
kinaldeko frontean gertatu
zirenak azaltzen dira.



BISERA GORRIA

ANTTON KAZABON

GAZTE LITERATURA

Neska baten desagertzea.
Beldurra, kezka, intriga...




KAIXO, KATTIN!

ANTTON KAZABON

GAZTE LITERATURA

Haserretu diren bi neskaren
arteko gutunak



HODEIETAN

AITZOL LASA

GAZTEENTZAKO
ZIENTZIA NOBELA

Institutuko azken urteetan diren lau gazteren arteko maitasun harremanak abiapuntu hartuta, hodeien formazioa eta fenomeno atmosferikoen zenbait nozio argitzen dira liburuan.



USATEGIAREN PRINTZPIOA

AITZOL LASA

GAZTEENTZAKO MA-
TEMATIKA NOBELA

Herrian lapurreta bat gertatu da, eta Argiri egokitu zaio misterioa argitzea. Lapurrak aurkitzeko, ezinbestekoa gertatuko zaio Argiri printzipio matematiko bat erabiltzea: “Usategiaren printzipioa”, edo Dirichtleten printzipioa.




NAFARROAKO MARIS- KALA

AITZOL LASA

GAZTEENTZAKO
ZIENTZIA-FIKZIO
NOBELA

Nobela distopiko honetan, Nafarroako Erresuma modernitatean sartu da bere independentzia inoiz galdu izan gabe. Nagusitasun teknologikoaz baliatuz, Nafarroako Mariskal nonahikoak erabateko agintea ezartzen du erresuman.



**ANNA KOPEK ETA
matxioxkaren
kondaira**
HARITZ LARRAGETA

**ANAI-ARREBA BIREN
ABENTURAK MUNDUAN
ZEHAR**

Uxueren eta Jokinen ama kazetaria da eta, hori dela eta, bidaiatzea tokatzen zaie maiz. Baina, honako honetan, ezohiko abenturak biziko dituzte eta Moskuko kaleetan arriskuari aurre egin beharko diote.

DBH1-DBH2

NOBEDADEA
Azalarik ez dago
oraindik.
Udazkenean
argitaratuko da.

**ANNA KOPPEK ETA
ERREGINAREN EDABEA**
HARITZ LARRAGETA

**ANAI-ARREBA BIREN
ABENTURAK MUNDUAN
ZEHAR**

Moskun bizitako abentura ahaztezinaren ondoren, oraingo honetan, Kairora eramango ditu Uxue eta Jokin amaren lanak. Bertan, gaur egungo eta antzinako Egipto nahasiko dituen misio baterako laguntza eskatuko die emakume misteriotsu batek. DBH1-DBH2



**ITZALEN DAMA ETA
PATXI BAKALLU**
URTZI LEONET

**LITERATURA
FANTASTIKOA**

Laino Zuri Handiaren Lurraldean iluntasuna da nagusi; Tawhirimatea zeruetako jainkoa haserre dago, eta laino beltz eta ekaitzekin estali du eguzkia. Herri margotua erabat abailduta dago, baina gure protagonisten etorretarak piztu die itxaropenarenugarra.



7G UDALEKUAK

NEREA LOIOLA

**ABENTURATU ZURE
ABENTURA + SCAP-
PEBOOK**

LIBURU HAU
DESBERDINA DA.
Istorio honetan gertatuko
dena ZURE eskuetan dago.
ZU zara protagonista.
Arriskuak, dilemak, eta
abenturak aurkituko dituzu.
Erabakiak hartu beharko
dituzu eta enigmak ebatzi.
LH5-LH6



AZKEN DENBORA

NEREA LOIOLA

**ABENTURATU ZURE
ABENTURA + SCAP-
PEBOOK**

LIBURU HAU
DESBERDINA DA.
Istorio honetan gertatuko
dena ZURE eskuetan dago.
ZU zara protagonista.
Arriskuak, dilemak, eta
abenturak aurkituko dituzu.
Erabakiak hartu beharko
dituzu eta enigmak ebatzi.
LH5-LH6



LURREAN HAZIAK

ASEL LUZARRAGA

KOLONIALISMOA

Iraultza gatibu dago ezezagun-
en eskuetan, lagun bakarra
Sayen maputxe machia
duela. Bitartean, Lof Kidu
Ngüenewün komunitatean
ez dira lo geratzekoak. Zigor
ez dago bakarrik, aldi berean
du Nahuel bestengusua bere
kezketan lagun eta ezinegon
berrien iturri.




ILANIA

PERU MAGDALENA

FANTASIA

Irla fantastiko eta irudipe-
nezkoak, ametssetako
herrialde bat gauzatu.



PANTAILEN GARAIPENA

IÑIGO MARTINEZ PEÑA

PANTAILEN
GENIEGKERIA
AZTERGAI

Botereak erabat garden nahi
gaitu, boterea bera sekula
garden izango ez den arren
kaleak eta lanpostuak
bideozaintzaz beteta
dauzkagu eta etengabe
zelatatzen gaituzte.

4 DBH



MANDAMENTU HIPER- MODERNOAK

IÑIGO MARTINEZ PEÑA

EGUNGO
BIZIMODUA
AZTERGAI

Zerk egiten du gure gizartea
den bezalako? Zertan eta
zergatik gara aurreko be-
launaldietatik desberdinak?
Gure aroa bereizten duten
ezaugarriak hauteman nahi
ditu Iñigo Martinezek, eta,
horretarako, inkontzienteki
geureganatu ditugun agin-
duak bilatu eta definitzen
ditu. 4DBH

HATSAREN POESIA
Olerki Bilduma
2022



HATSAREN
POESIA

HATSAREN POESIA


AINARA MAYA

**OLERKIAK ETA POESIA
TAILERRAK**

Askok idazten dute bertan, eta orotariko poesia aurki daiteke, baita haurrena ere, edota poeta gazteen poemak ere. Euskal Herri osoko nahiz diasporako 125 poeta.

Miren Agur Meabe
Hizketa: Mari Argote

Zisnea eta uhartea



HIZKETA ERABAZLEKIN - NETUAK

ARIAN BILDUMA

MIREN AGUR MEABE

GAZTE LITERATURA

Kerman Mendizabalek bere historia kontatzen digu. Gaztea zenean, Eguzki lore hotelean lan egiten zuen. Behin, Aste Santuko oporretan, Julia ezagutu zuen eta une bereziak bizi izan zituzten.

A2 mailarako irakurketa

**Urtebete
itsasargian**

MIREN AGUR MEABE




**URTEBETE
ITSASARGIAN**

MIREN AGUR MEABE

GAZTE LITERATURA

Jon gaztetxo bilbotar bat da, gerra hastean gurasoek Garraitzetara bidaltzen dutena (Lekeitioren irudikapen literarioa), osaba farozainarengana. Urtebete iraungo du gerrak Euskal Herrian eta bitarte horretako gertaera nagusiak ezagutuko ditugu Jonen ikuspegitik.




ITSASOAREN ATEA

MIREN AGUR MEABE

**MUNSTROAK, UMO-
REA, ABENTURA**

1870eko negua. Aitak bapore batean utzi du Elora Duval, Ubarroien Uhartera bidean. Hamahiru urteko neskatxari ama hil zaio eta bizimodu berri bati ekin beharko dio Brigita amonaren basetxean. Lanean ere hasiko da, umezain, Galantenean, eta laster estutuko du harremana bertako Ariane txikiarekin.




BIZITZA MOTOR GAINEAN

XABIER MENDIGUREN

GAZTE LITERATURA

18 urte ditu Ainarak. Amaitua du Batxilergoa, baina ez du garbi ikusten zer egin bizitzan eta, amari aurre eginez, ikasketak alde batera utzi eta amonaren etxera joango da bolada baterako. Handik lagun bati idatziko dizkio gutunak, bere bizitzaren berri emateko.




ITSASOKO LOTI EDERRA

XABIER MENDIGUREN

GAZTE LITERATURA

Istoriorik ederrenen magia berreskuratu nahian, loti ederraren ipuina hartu eta bere kasa kontatu du egileak: pertsonaia eta egoera berriak asmatuz, giro berrietan kokatuz (palaziotik, arrantzale eta artzain mundura), eta idazten ari denari buruz iratxo adar-jotzaile batekin etengabe eztabaidatuz.



IRAKASLE ALU BAT

XABIER MENDIGUREN

GAZTE LITERATURA

Hamalau urteko neska-mutil batzuk, institutuan hasi berri direnak, ohizko ilusio eta kezkekin: ilusioak zapuzteko eta kezkek beldur bihurtzeko, nahikoa izango da irakasle alu bat: Txin-txeta.



PRINTZESA GUZTIEK DUTE BERE IPUINA

AINTXIÑE MENDIZABAL

MUSULMANDARREN
GARAIANA IHES
EGINDAKO
PRINTZESA BATEN
ISTORIA

Abentura eta historia uztartzen ditu Raisa printzesa eta haren alaba, Aiora, protagonista dituen ipuin honek. Alhambra, Baztan eta Tutera izango dira beren bizitzako agertoki nagusiak.



AMALUR

IXABEL MILLET

EUSKAL MITOLOGIA

Amalur mito hau kontatuko dut eta liburuaren aurkezpena, nola sortu zen eta kamishibai formatoaz hitz egingo dut ikasleekin. Euskal mitologia inguruan dudan eza-gutza partekatzea gustukoa dut galderei erantzuten.



**BI ABENTURA ETA
AMODIO BAT**
MIGEL A. MINTEGI

**GAZTE BATEN
ABENTURAK ETA
AMODIOAK XVIII
NEDEAN**

Pedro Kanadatik Euskal Herriira itzuli da. Bidelapurrak neska bat bahitu eta Pedrodi kutun estimatu bat lapurtzen diote. Ez du atsedetik hartuko berriro berreskuratu arte, eta bide batez neska askatu arte.



A ZER GAUPASA!
MIGUEL A. MINTEGI

**ABENTURA ETA
INTRIGA**

Oporrak. Ikasturtea bukatuta sei lagun kostaldera doaz, kontzertu paregabe batera. Taldeko neska batek mutil bat ezagutzen du kanpinean. Iluntzean ikusten du herrian, kontzertu aurretik, eta hairengana doa.



**KULERO
SALATZAILEAK**
MIGUEL A. MINTEGI

**ABUSU-SEXUAL
BATEN SALAKETA**

Rafa lo dago. Amak iratzarri du haserre. Bezperan eskola arteko festa izan da eta gehiegi edan zuen. Amak kulero batzuk erakutsi dizkio. Gelan omen zeuden, zoruan, eta itxuraz ikaskide batenak dira. Rafak ez dakit nola iritsi diren, ez daki etxeratu aurreko orduetan zer egin zuen, baina arazotan dago.



ABBADIAREN SEKRETUA

FERNANDO MORILLO

MISTERIOA

Abbadia Eremua liluragarria eta misteriotsua da. Alar eta Kaiet anaiak larriturik daude: badirudi zerbait beldurgarria gertatzen dela han. Bi lagun desagertu dira bertan, eta susmo latz bat dabil airean. Zer munstro mota ezkutatu da?



DEABRUAREN LETAGINAK

FERNANDO MORILLO

FANTASIA
UMOREA

Euskal mitologiako izakiak gauean, errealitatean eragiten duten marrazkiak, inbokazio diaboliko dibertigarri bat, aingeru "perfektu" baten ingurukoak, Jesukristoren bila joaten den gizon baten istorio sarkastikoa...



HIRU ISTRIPU ETA BI AMODIO

FERNANDO MORILLO

GAZTE LITERATURA


Anuskak eta Galderrek mendi-istrypu lotsagarri baten ondoren ezagutzen dute elkar. Anuska liluraturik dago, baina Galderrek sekretu beltz bat ezkutatu du. Txinpart distiratsu baten ondoren, bereizi giten dira.



**BAINA EZ LUKETE HAN
EGON BEHAR**
ASIER OSINALDE

GAZTE LITERATURA

Bakarrik jaio eta bakarrik hiltzen gara. Bitartean, hari ikusezin baten gainean orekari eusten saiatzen gara eta argazkiak ateratzen dizkigute. Gu argazkitakoak izaten saiatzen gara, baina ez gara.



EZEKIEL BILDUMA
JASONE OSORO

**LEHEN MUSUA ETA
ADISKIDETASUNA**


Ezekiel eta bere lagunak lokalean elkartzen dira egunero. Oraindik ez dute lehen musurik eman eta egun baten apustu bat egingo dute: nor izango da lehena? Horrek arazoak ekarriko dizkie eta gordetako sekretuak azalaraziko ditu.



**ESKULARRU BELTZAK
BILDUMA**
JASONE OSORO

**INSTITUTU GARAIKO
ABENTURAK**

Babak Beire ezagutzen duenean hura neskatila zaurgarria da eta boxeoa irakatsiko dio, bizitzan borrokatzen jakitearen garrantzia erakutsiz. Ikasturte hasieran sorpresa bikoitza: Baba Beireren eskolan hasi da eta Beire ez da Babak uste zuen neska xaloa, haatik, institutuko talde indartsuko liderra da.



MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA

JOSEBA SARRIONANDIA

GAZTE LITERATURA

«Benetako historia bat» kontatzeko eskatu dio neskato batek bere amonari, benetako historia bat behingoz, ipuin umekoiak kontatzen dizkiolako beti amonak, Historia irakaslea izan arren.



LITERATURATIK MUSI- KARA

ASIER SERRANO

LITERATURA ETA
MUSIKA

“Literaturatik musikara” saio musikatua eskaintzen dut. Saioa hiru zatitan banatuta dago.



(A) GUZTIA MOZTU ETA ITSAS DAITEKE

AINZANE USANDIZAGA

DENBORA. ARTEA.
ESTHER FERRER

Bere oinarrian Esther Ferrer artistak denboraren inguruan egindako lanak daude, eta modu jostagarri eta ederrean hauek ezagutaraztea da liburuaren helburua. Esther Ferrer Euskal Herriko artista garrantzitsuenetakoa da.




BIDEAK, ALDAPAK ETA BIHURGUNEAK

JUAN LUIS ZABALA

**TXIRRINDULARITZA
ETA NERABEZAROA**

Neska gazte txirrindulari baten kezka eta zalantza kontatzen dira. Txirrindularitza maite du, baina beste kontu batzuk ere oso erakargarri gertatzen zaizkio, eta denak ez dira bateragarri.




ZABALEKO TXORIMALOA

JUAN LUIS ZABALA

**AMODIOZKO
ISTORIA**

Bi gaztetxoren arteko amodioa kontatzen da. Mutila oso herabe eta uzkurra da, baina neskaren argitasunak bien arteko amodiorako bidea irekiko du, txorimalo misteriotsu baten laguntzaz.



110 STREET-EKO GELTOKIA

IÑAKI ZABALETA

**NEW YORK. EUSKAL
ERREFUXIATUA.
MAITASUNA**

Euskal iheslari/errefuxiatu bat New York bizi da, dokumentu legalik gabe. Abentura, amodioa, hiri erraldietako bakardadea, sexu jazarpena, laguntasuna eta solidaritatea...bertan daude.



**NIRE AITA EZIN IZAN
NUEN SALBATU**
IÑAKI ZUBELDIA

GAZTE LITERATURA

Garai bateko mendi-lapur eta bandoleroen istorio latz bat kontatzen da. Mutiko bati, Tolosako feriatik etxera doazela, Albizturko baso batean, aita hiltzen diote. Baina bera izango da lapurren gordelekua bilatu eta herritarrei azalduko diena. Lapurren bukaera ez da oso atsegina izango.

NOBEDADEA
Azalarik ez dago
oraindik.
Kurtsoan zehar
argitaratuko da.

**LEHOI BATEN INGURUKO
MEMORIA**
IÑAKI ZUBELDIA

ELEBERRIA

Bi gaztek Arrikrutzen leize-lehoiaren hezurdura aurkitzen dute. Baina laster galdu egiten dira. Gau osoa irten ezinik: haluzinazioak, beldurra, etsipena, misterioa... Goizaldera, hamabi ordu latz pasatu ondoren, behi-adar baten hotsa: “adar salbatzailea”.



1948KO UDA
PATXI ZUBIZARRETA

GAZTE LITERATURA


Astlehenean daukan Gizardetako azterketa dela eta, larunbat arratsaldean Beñat etxean geratu da. Dena dela, asteburuetan ikasi behar izatea aspergarria zaionez, liburuak bertan behera utzi, eta gurasoen logelara jo du, aitari zigarro bat lapurtzeko asmotan.



TRIPOLI KABUL
KARLOS ZURUTUZA

GAZTE LITERATURA


Urtetako txangoa izan da Tripoli eta Kabul artekoa. Bidean, gerrak, goseteak eta injustiziak etxetik kanporatutakoekin egin dut topo. Erraza da Donostiatik Kabulera joatea, Tripoli zeharkatuta bada ere, baina ez alderantziz.



EKIALDE HURBILA,
MUINAK ETA ERTZAK
KARLOS ZURUTUZA

GAZTE LITERATURA


Ekialde hurbila, muinak eta ertzak, Mikel Ayestaran, Ane Irazabal eta Karlos Zurutuza: 2011n, itxaropena lehertu egin zen herrialde arabiarretan, askatasun politikoaren eta justizia sozialaren ize-nean, plazaz plaza zabaldu zen iraultza, mugak zeharkatuz.



PIRTZINA ZILBORREAN
ANTTON KAZAREON

GAZTE LITERATURA

Telefonoz idatzitako maitasun historia.



LARANJA BAT
zaborretan
PATXI ZUBIZARRETA

GAZTE LITERATURA

Saglana, 5 urteko neskatilla, Toki pobre edo aberats batean ote zauden jakiteko, begiratu zakarrontziei. Zikinkeria ordez zakarrontziak ikusiz gero, ez pobre ez aberats izango da: turistikoa, horixe.



EZTIA ETA OZPINA
PATXI ZUBIZARRETA

GAZTE LITERATURA

Marokon, 1990eko hamarkadetan gaude. Gazte magrebtar askoren antzera, Selimek Maroko hitza utzi, eta Paris distiratsura joatea desio du. Hantxe dago haren Meka.



FOTOGRAMAK
GOIATZ LABANDIBAR

NARRAZIOAK

Zuri-beltzeko argazkiak oinarri hartuta sortutako narrazio laburrak dira. Argazki horien atzean dauden istorioak kontatzen dira, AEBetan, Hegoafrikan, Parisen, Bartzelonan... kokatuak.



**KROKODILOA
OHE AZPIAN**
MARIASUN LANDA

GAZTE LITERATURA

Tipo arrunta da ipuin hone-
tako protagonista. Arrunta
du etxea, arrunta lanbidea,
arrunta izena bera ere: J.J.
Baina halako batean, gaur,
ohetik jaiki, eta batere arrun-
ta ez den zerbait gertatu zaio:
krokodilo bat ikusi du bere
ohe arruntaren azpian.